

Argi izan behar ditugu desgaitasunaren eta lanerako ezintasunaren arteko ezberdintasunak. Desgaitasuna duen pertsonak ziur aski behin betikoa izango den urritasuna du bere gaitasun fisiko, psikiko edo sentensorialetan; ezintasunak, aldiz, langilearen lanerako gaitasunarekin du zerikusia.

Nola jar naiteke harremanetan Alcaláko Unibertsitateko Klinika Juridikoarekin?

Bidali zure kontsulta gure helbide elektronikora
clinicalegal@uah.es

Gogoan izan:

Klinika Juridikoak doan eskaintzen du zerbitzu hori

GIBa duten pertsonen eskubideak baliatzeko aukera ematean espezializatuta dago

Zerbitzu anonimoa eta konfidentziala da

Zure kontsultei erantzuten dietenak Zuzenbideko ikasle eta irakasleak dira

DECADE katedra
Alcaláko Unibertsitatea
catedradecade@uah.es

Alcaláko Unibertsitateko
Klinika Juridikoa

@ clinicalegal@uah.es

f ClinicaLegalUAH

ClinicaLegalUAH

HONAKO HAUEN LAGUNTZAREKIN:



09 | Alcaláko Unibertsitateko
Klinika Juridikoa

EU

**GIBa eta
desgaitasun-maila
lortzea eta
berrikustea**



GIBa eta desgaitasuna

GIB diagnostikatze hutsak ez dakar berarekin automatikoki desgaitasun-maila bat aitortzea.

Beharrezkoa da prozedura hori eskatzea, ezintasun maila onartu, aitortu eta kalifikatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuak ezartzen duenari jarraikiz, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Lege Orokorrean (1/2013 LED) aitortzen zaizkien eskubideez gozatu ahal izateko.

Nor dira desgaitasundun pertsonak?

1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, desgaitasundun pertsonak dira “epe luzerako urritasun fisiko, mental edo sentsoiala edo adimen-urritasuna dutenak, baldin eta hainbat oztoporen aurrean, gizartean gainerakoen baldintza berdinetan erabat eta benetan parte hartzea eragozten badiete”. Horrekin batera, eskakizun administratibo bat dago, izan ere, desgaitasundun pertsonatzat hartuko dira % 33ko desgaitasun-maila edo handiagoa dutenak bakarrik.

Horrela, bada, desgaitasun-maila aipatutako urritasunen eta faktore sozial osagarri deritzenen balorazioaren arabera izango da.

Nola eskatzen da desgaitasun-maila?

IMSERSOren Probintzia Zuzendaritzetan edo Autonomia Erkidego bakoitzeko gizarte gaietarako Sailaren mende dauden Oinarrizko Zentro deritzenetan aurkez dezakezu eskabidea.

Han jakinaraziko dizute zer dokumentazio aurkeztu behar duzun, eta eskabide-inprimakia emango dizute; inprimaki hori Internet bidez ere eskura dezakezu, dagokion Autonomia Erkidegoaren webgunean. Eskabidearekin batera, zure nortasuna eta osasun-egoera egiaztatuko duen dokumentazioa ere aurkeztu beharko duzu.

Informazio hori guztia Balorazioko eta Orientazioko Lantaldeek aztertuko dute, desgaitasun-maila zehaztuko duen irizpena eman aurretik.

Hiru hilabetekoa da prozedura ebazteko gehienezko epea, eta ebazpenean mailaren berrikuspena egingo den data adieraziko da. Egoera larriagotu edo hobetu delako eska daiteke berrikuspen hori, baina, betiere, ebazpena eman denetik bi urte igaro badira. Bi urteko epe hori eten egin daiteke, izan ere, aldaketa nabarmenak gertatzen badira, pertsonak hobera egin duelako edo bere egoera larriagotu egin delako, nahitaezkoa da dagokion organoari aldaketa horien berri ematea.

Pertsonari ematen zaion mailaren arabera, desgaitasun-maila hori aitortzeak desgaitasuna duten pertsonen aitortzen zaizkien eskubideez eta onurez baliatzea ahalbidetzen du (lanpostuaren egokitzapenak, oposizioetan egokitzapenak, dirulaguntzak, onura fiskalak, garraibideetan murriztapenak, etab.).

Koinfekzio kasuak

GIB birusagatiko eta C hepatitisaren birusagatiko koinfekzioarena da, aldeztatik eskabidea eginda, % 33ko desgaitasun-maila automatikoki eskuratzea posible den kasu bakarra.

Gainerako kasuetan, CD4 zenbaketa, immunoeskasiarekin zerikusia duten gaixotasunen eta ospitaleratu beharra izan duenaren arabera izango da desgaitasun-maila.

Osasunari dagozkion faktoreekin batera, faktore sozialak ere balioetsiko dira, baina horiek kontuan hartzen dira desgaitasunaren balorazio-ehunekoa 25 puntukoa baino txikiagoa denean bakarrik eta, nolatan ere, faktore horien balorazioa ezin da 15 puntukoa baino handiagoa izan.

Zer egin dezaket aitortutako desgaitasun-ehunekoarekin ados ez banago?

Beti errekurtsioa aurkez daiteke desgaitasun-mailaren ebazpena: lehenik eta behin, erreklamazio administratibo bidez eta, ondoren, administrazioarekiko auzi-errekurtsio bidez.